



IKASTURTE BUKAERAKO **FESTA GAUR ZORTZI**

Villabonako Jesusen Bihotza ikastolak ekitaldi ugari antolatu ditu; 14:00etan hasiko dute jaia esku pilota partidekin 4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-05-29**

VIII. URTEA 2.013. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



A. BELAUNZARAN

JON ANDER GOÑI ARTZAINA

«Lanik ez da falta hemen, lan asko egin behar du artzainak»

AMEZKETA Herrian 6 edo 7 artzain besterik ez daude, eta Goñi da horietan gazteena; laster abiatuko da artaldearekin Aralarra 7

«Egoera berezi, historiko eta atzera ezinezko» baten aurrean gaude

TOLOSA Lokarrik antolatutako mahai-ingurua izan zen herenegun 'Nola sendotu bakerako aukera?' izenpean burutzen ari den zikloaren baitan 3

Bertso saioa izango da gaur, IKaren 20. urteurrena dela eta



AISIA Kultur ekitaldiak dira nagusi azkenaldian bi eskualdeetan; Leitzan, euskaltegiaren urtebetetzea ere ospatuko dute 6



Triangulon elkartu ziren grafikagintzako langileak. A. IMAZ

Grafikagintza sektorea hurrengo ostegunean berriro irtengo da kalera

TOLOSA LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deituta manifestazioa egin zuten atzokoan 2

2010-2011 ikasturterako
AURREMATRIKULA maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Ile-apainketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Estetika

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A ereduak):
Apainketa Estetika pertsonala

GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA. IKASKETAK DOAN
San Ignazio, 25 - Tel.: 943-13 42 23 Faxa: 943-89 41 96
012291aa@hezikuntza.net - 20800 ZARAUTZ

TITULAZIO OFIZIALAK

ceinpro

ERDI ETA GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK
DISEINU GRAFIKOAN

Nazioarteko Lehiaketak
Praktikak atzerrian

INFORMAZIOA 943 310 873


IRUDIGINTZA, KARTELGINTZA, PUBLIZITATEA
ARGAZKIGINTZA, BERRIKUPEN DIGITALA, ZERBIZUAK
WEB DISEINUA, MULTIMEDIA, MARKETAGINTZA

Grafikagintzak grebekin jarraituko du «hitzarmen duin» baten alde

Ekonomia » Sektoreko Gipuzkoako langileak Tolosan elkartu ziren atzo; «patronalari men» egiteko ez daudela esan zuten.

ASIERIMAZ

Gipuzkoako grafikagintza sektoreko hainbat langile Tolosan elkartu ziren atzo LAB, ELA eta CCOO-ek deituta. Bertan egintza mani-

festazioan lan hitzarmen duin baten aldeko oihuak eta aldarriak zabaldu zituzten.

Martxaren amaieran, Triangulo plazan, hiru sindikatuak hitzartutako idatz bat irakurri zuten.

«Sektorearen %90a kalean»

«Adegiren jarrera salatu eta hitzarmen duin baten defentsa egiteko bildu gara gaur hemen», azaldu zuten LABeko ordezkariak. Gipuzkoako enpresaburuez hitz

eginaz jarraitu zuen ondoren: «Hainbat negoziazio bilera, negoziazio deituzkerik badago, eta jarrera

«Gaur eguneko hitzarmenetik hasita garatuko den negoziazio bat nahi dugu»

bera Adegiren aldetik. Hitzarmenaren muina aldatu nahi du patronalak, grafikagintzako langileok

urteetan lorturiko eskubideak atzera botatzeko.

Baina bide horretan, LAB, ELA eta CCOO sindikatuak aurrean edukiko dituzte. Horrela azaldu zuten atzo behintzat: «Negoziatio erreala bat nahi dugu, gaur eguneko hitzarmenetik hasita garatuko den negoziatio. Horregatik erabaki genuen negoziatio mahaiak parte hartzea etetea, eta horregatik aterata gara kalera, Adegiri argi utzi diogu grafikagintzako

langileok ez gaudela prest patronalari men egiteko, eta hitzarmen duin bat lortu arte borrokatuko dugu».

Orain arteko bigreba egunak «arrakatsatuak» izan dira sindikatuentzat: «sektorearen %90a kalera aterata dela harro esan dezakegu».

Ekainaren 3an, berriro kalera

Adegiren «jarrera» aldatzeko hiru greba gehiago egingo dituzte. Lehen ekainaren 3koa izango da. Hiru sindikatuak 05:15ean Urbileko aparkalekura gonbidatu zituzten langileak. 11:00etan berriro, Adegiren egoitza aurrean, Donostian, elkarretaratzea egingo dute.



Tolosako kaleetan zehar manifestazioa egin zuten atzo grafikagintza sektoreko langileak. A. IMAZ



Metalgintzako langileak ere kalean

IBARRA » Voith Paper enpresako hainbat langile kalera irten ziren atzo. Metalgintza sektorean greba eguna zuten atzokoa eta Apattako langileek elkarretaratzea egin zuten «hitzarmenaren alde». HITZA



Udalaren bilkurak zuzen zuzenean

TOLOSA » Udalak osoko bilkura burutu zuen herenegun. Bertan, Jokin Biddarratz alkateak jakinarazi zuenez, hemendik aurrera udalbatzaren bilkurak internet bidez zuzenean ikusteko aukera egongo da. Lehen proba herenegun egin zuten, www.tolosaldekoudala.net helbidean. A. IMAZ

Lizardi Eguna girotzeko hainbat ekimen antolatu dituzte aurten

A. IMAZ

Jose Maria Agirre, *Lizardi*, poeten omenez, bere izena daraman Tolosako Elkarrekin Lizardi Eguna antolatu du ekainaren 6an. Lehenik ibilaldian Urkizura joango dira eta han hamaiketako, poesia errezitaldia eta euskal kantuak abestu ondoren, Elkartera itzuliko dira bazkaltzera.

Aurten berrikuntza bezala, Lizardi Eguna girotzeko bi ekitaldi gehiago antolatu dituzte Tolosako udaletxean. Bata ekainaren 1ean izango da eta bestea 3an.



Urruzola, Igor Usandizaga, Amaia Zamarripa eta Jose Manuel Urruzola. A. I.

» EGITARUA

Ekainak 1, asteartea

■ 20:00etan. Tolosako Udal pleno aretoan Paulo Iztuetaren hitzaldia: *Euskal Herria euskalduntzea eta euskal curriculum*.

Ekainak 3, osteguna

■ 20:00etan. Tolosako Udal pleno aretoan, *Kantu kontari* saioa. Lina Anduezak eta Ana Telletxeak parte hartuko dute.

Ekainak 6, igandea

■ 10:15ean. Triangulotik irtenda ibilaldia Lizardiko oroitarrira, Urkizuko magalera. Egurdian, bazkaria Lizardi elkartean.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliagai banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

600-97 74 95

607 -25 42 40



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Dantza klasikoa bihar ikusgai, Zerkausian

KULTURA • Naturaldia jardunaldien barruan dantza erakustaldia izango da bihar Zerkausian. Hain zuzen ere, giza gorputzak, gorputz adierazpenaren forma gisa hartuta, eta dantza klasikoaren magiak izango dira protagonista Gipuzkoako Dantzari Profesionalek Elkar-tearen eskutik, 12:00etatik aurrera. Gipuzkoako hainbat dantza eskoletako dantzariak barrako eskola teknikoetan egiten diren ariketak egingo dituzte, dantzaren indarra, plastikotasuna eta artea bilduz.

Familien elkarketa gaur, Santa Maria parrokian

ERLUIJOA • Haurtzaroko katekesiak deiturik, Tolosa eta Ibarroko Pastoral Barrutiko Familien Bigarren Elkarketa egingo dute gaur, 17:00etan hasita, Santa Maria parrokian. Otoitzaldia egingo dute elizan, eta ondoren, elkarrizketa aretoan.

Esklerosi anizkoitzari buruzko kanpaina, gaur

GIZARTEA • Pasa den asteazkenean izan zen Esklerosi Anizkoitzaren Eguna, eta hori dela eta, Ademgi Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak informazio mahaia jarriko du gaur, San Frantzisko elizaren ondoan, 10:00etatik 13:30era. Gaixotasunari buruzko informazio orriak banatuko dituzte, «herritarrek esklerosi anizkoitzak eragiten dituen arazoak sentibiltzatzeko helburuz». Halaber, ekimen honekin errehabilitazio zerbitzuak finantzatzeko dirua ere bildu nahi dute. Esklerosi Anizkoitza nerbio sistema zentralaren gaixotasun bat da, nerbio sisteman zehar orbanak sortzen ditu, nerbioaren galera eraginez.

3x3 saskibaloitxapelketa izango da ekainaren 19an

KIROLA • Takek 3x3 saskibaloitxapelketa antolatu du ekainaren 19rako, alebin, infantil eta koadrilentzat. Sari ugari eskuratzeko aukera izango da, eta bertan parte hartzeko www.takesb.com webgurena jotzea nahikoa izango da.

Eskolen arteko Batel Topaketa, gaur, Orian

KIROLA • Tolosako hiru ikastetxeek (Orixe BHI, Hirukide-Eskolapioak eta Laskorain ikastola) Hirugarren Batel Topaketa egingo dute gaur, 11:00etatik 12:30era, Oria ibaiaren batel gunean, Zerkausi parean. Izango diren erakustaldi eta txapelketek gain, DBHko lehen mailako ikasle guztiek arranean haste-ko aukera izango dute. Ala izeneko ikaste-ontzi berezian. Arrauna gazteen artean sustatzeko antolatu dute ekimen hau.

«Ezinezkoa da orain atzera egitea»

Politika • Lokarrik antolatuta, mahai-inguruak izan zen herenegun bakeranzko prozesuaren egoeraren inguruan.

IÑIGO TERRADILLOS

Azken asteetan *Nola sendotu bake-rako aukera?* izenburupean mahai-inguru zikloa ari da gauzatzen Lokarri akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sareak. Ekimen honen bidez, bakeranzko prozesuaren egoerari buruzko ideiak eta hausnarketak herritarrekin partekatu eta Bruselako Adierazpenerako atxikimendua bildu nahi dituzte. Herriz herri ari dira mahai-inguruak egiten, eta herenegun Tolosaren txanda izan zen; bertan Pablo Muñoz *Diario de Noticias* taldeko zuzendariak eta Paul Rios Lokarriko koordinatzaileak hartu zuten parte, hainbat herritarrekin batera.

Gatazkak konpontzen adituak diren nazioarteko 21 eragilek, tartean lau Nobelsaridunak, sinaturiko Bruselako Adierazpena aurkeztu zuen Brian Currinek, Hegoafrikako bake bitartekariak, martxoaren 29an. Adierazpen horrek bi dei biltzen ditu: batetik, sueten «iraunkor eta erabat egiaztagarria» eskatzen dio ETARI, eta bestetik, Espainiako Gobernuari «erantzun egokia» eman dezala.

Hori gertatu eta hilabete ingurura, ezker abertzalearen erreazioa iritsi zen. Hain zuzen ere, Bruselako Adierazpenari erantzun «eraikitzaile» bat emateko eskatu zien bai ETARI bai eta Espainiako Gobernuari ere.



Paul Rios (ezkerrean) eta Pablo Muñoz (eskuinean), herenegun, Tolosako Kultur Etxean. I.T.

Aldaketa «nabarmena»

Ardatza testuinguru hori zutelarik egungo egoeraz duten ikuspegia azaldu zuten mahaikideek. Euren arabera, «aldaketa nabarmen bat egon dela agerikoa da, eta egoera berezi, historiko eta atzera ezinezko» baten aurrean gaude. Halaber, konfiantza hitza ere bien ahotan izan zen, «herritarren artean itxaropena lantzeko beharra handia baitago une honetan».

Paul Riosen ustetan bake bidean «une erabakigarria» bizi dugu, baina horretarako hainbat oztopo gainditu behar dira: «Batetik ETAREN jarrera, berak pauso bat eman aurretik Espainiako Gobernuari konpromiso zehatzak eskatzen dizkio eta hori gertatzea oso zaila da; bestetik, Espainiako Gobernuak oztopoak jartzeari utzi, eta

jarrera errazago bat hartu beharko luke, ezker abertzalearen ordezkariek aske utzi edota alderdia legalizatuz». Riosen arabera, «ezin da ukatu aldaketak egon direla, hori bake bideari oztopoak jartzea baita; aldi berean, ezker abertzalearen jarrerak «irmoagoa» izan beharko luke eldadio, izan ere, «baiherritarrek bai eta gobernuek ere ekintzak ikusi nahi dituzte berriro konfiantza edukitzeko».

«Eskemak aldatzen»

Pablo Muñozek ere gizar-teak «konfiantza eskasa» duela berresten du, eta bizi dugun unea baliatzen ez bada egoera asko zailduko dela uste du. Bere hitzetan, ezker abertzaleak «pauso handia» eman du, «inoiz ikusi ez dena», eta «austardia handia» izan du hori egite-

ko, «nolabait orain arteko eskemak hausten ari baitira». Baina, Muñozen ustetan, hainbat hutsune edo puntu bete behar litateke: «Esaterako, ezker abertzaleari historian zehar egin duen eta egin zaion minaz oharretza falta zaio; horretaz gain, ETARI eman beharreko pausok zein diren esan beharko lioke».

Ezker abertzaleak eman duen «aldaketaz» alderdian bertan «desadostasunak» daukela dio Muñozek, «batzuk orain arteko bide beretik jarraitu nahi baitute, beraz, posible da eszizio bat gertatzea». Pablo Muñozek uste du etorkizun laburrean ikusiko dugula gatazka-aren konponbidea, «baina hori zailtzen saiatuko dira batzuk orain arte bezala, gatazkarekin jarraitzea nahi baitute».

Harpidedun egiten bazara
aisialdirako **bonu bat opari**

Eroski Bidaiek eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria

Hotel bateko egonaldi bat, 2 laguntzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HÄREMANNETARAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Uztailaren 15ean
Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIAREN harpidedunen artean, Eroski Bidaiek-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIAREN harpidedun izateko.

EROSKI/Baskinbox
AUKERA EZAZALDUZ BIZI EUSKATZ
berria

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
José Pastilloren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriarekin eskaintza berezia

Aurreko bi aleak ez badituzu eskuratu, eskatu orain.
Hirugarren alearekin batera jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailak:
FAGOR
AUKERA EZAZALDUZ BIZI EUSKATZ
berria

Bihar da Paskualtxoren omenaldiko txartelak erosteko azken eguna

Zizurkil » Bihar hilak 30, bazkariko txartelak erosteko azken eguna da. Ekainaren 6an izango da omenaldiaren eguna.

ERREDAKZIOA

Jose Mari Zulaika *Paskualtxori* omenaldia egingo diote ekainaren 6an Zizurkilen. Egun osoko festa antolatu dute. Goizean zehar, 11:30ean hasita, herri kirol jaialdia izango da Aundinibar baserriko belardian eta ondoren, 14:00etan, bazkaria egingo dute Zizurkilgo Intxaur frontoian.

Herri kirol jaialdian, harri-jasotzaileak, aizkolariak, segalariak, trontzalariak eta korrikalariak ari dira.

Bazkaltzeko txartelak

Herri kirolen osten, bazkarira joteko aukera izango da, baina horretarako txartelak erosi beharko da. Bazkaltzeko txartela salgai honako taberna hauetan daude: Azpeitian Mendizabal jatetxean; Tolosan Kantabriko tabernan; Zizurkilen Iriarte tabernan; Aian Joanene tabernan; eta Asteasun Iturriondo jatetxean. Bazkari txartelaren prezioa, 35 eurokoa da eta 14 urtetik beherakoek berriz, 8 euro balio du.

Bazkaritarako txartela erosteko azken eguna bihar, hilak 30, izango da. Bazkal ondoren, Epelde eta iturbide, Astiazaran anaiek eta alaba eta Tapia eta Leturia trikitilariak eta Irazu eta Sorozabal bertso-lariak izango dira. *Paskualtxori* oparia ere emango diote.



Danena-Olaederrakoak bikain

VILLABONA » Pasa den larunbatean, Villabonako Olaederra Kiroldegian, Halterofiliako Gipuzkoako Absolutu Txapelketa ospatu zen. Irungo, Zarauzko eta Danenako 16 pultsularik hartu zuten parte. Ekainaren

5ean, Galdakaon ospatuko den Euskadiko Absolutu Txapelketarako baliozgarria izan zen txapelketa eta pultsulariek emanaldi polita eskaini zuten emaitza onak eskuratuz. **HITZA**

Jesusen Bihotza ikastolako ikasturte bukaerako festa, prest

Villabona » Ekainaren 5ean ospatuko dute. 14:00etatik aurrera, kirola, jokoak, ikuskizuna, jatekoa, tonbola... izango dira.

ERREDAKZIOA

Ia ekainean sartzeragoaz eta ikasle eta irakasleek, oporrak gero eta gertuago dituzte. Villabonako Jesusen Bihotza ikastolak prest du ikasturte amaierako festa.

Ekainaren 5ean ospatuko dute. 14:00etan hasita ekintza ezberdinak izango dituzte. 14:00etatik 16:00etara, frontoi berrian, esku pilota eta frontenis partidak jokatuko dira. Futbol partidak berriz, Txerminen izango dira. 16:00etan, Mus txapelketa jokatuko dute eta aldi bereko Xake jokaldiak ere izango dira. Horiez gain, 16:00eta-

tik 16:30ak artean, Kros herrikoia egingo dute. 16:30etik 18:00etara, ikasleen ikuskizunak ikusteko aukera izango da. 17:00etatik 19:00etara berriz, 3. solairuan, argazki eta eskulanean erakusketa egongo da. 18:00etan, ganbaran, pailazoak eta tailerrak izango dituzte; aurpegi margotzea, marka eta eskumuturrekoak egiteko tailerrak. 18:15ean, ikasle eta gurasoentzako jokoak prestatu dituzte.

Tonbola eta pintxoak

Bukaera emateko, 19:30ean afari-merienda egingo dute. Tonbola eta trikitixa izango dira Txermin- go eraikinean. DBHko 3. mailako ikasleek, kurso bukaerako bidaierako dirua biltzeko asmoz antolatuko dute eta prestatuak aukera ere izango da. Tonbolako zozketa, jokoan ondoren izango da, 19:30ak aldera.

Laburrak

Ekainaren 1ean hitzaldia izango da Alkartasunan

ANOETA » Kutxaren jardunaldien eskutik, Alkartasuna Biltokian hitzaldia izango da ekainaren 1ean. 18:30ean hasiko da eta oraingoan jorratuko duten gaia, *Bakarrik bizitzea, bizikidetzaren alternatibak* izango da. Hizlaria berriz, Eider Saez izango da. Ohiko moduan, guztiak gonbidatuta daude.

Ohiko osoko bilkura ekainaren 2an 20:00etan

VILLABONA » Ekainaren 2an, udaltzeko batzar aretoan, ohiko osoko bilkura egingo dute. Ondorengo gai-zerrenda landuko dute: Aurreko bilkuraren akta onartzeko proposamena; Doitze-Planari buruz Ezker Batua-Berdeak aurkeztutako mozioa; anbulatorioa larunbat goizez ixtearen aurka EBk aurkeztutako mozioa; 2009 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren behin betiko onarpena; eta bukaerako, erreguak, mozioa eta galderak izango dira.

Gaur goizean Eskola Kiroleko festa izango da

VILLABONA » Villabonako eskola kiroleko festa antolatu dute Arratzainen. 10:30etik aurrera, benjaminen beraien artean partidutxoak jokatuko dituzte. 11:15etik aurrera, alebinen jokatuko dituzte eta infantilen txanda 11:45ean izango da. Eskola kiroleko ikasturtea ongi amaitzeko opariak eta gozokiak ere izango dira.

Behar Zana elkarteak 64. urteurrena ospatuko du

VILLABONA » Behar Zana K.E.-k bere urtemugaren festa ospatuko du ekainaren 5 eta 6an. Elkartearen 64. urtemuga ospatzeko antolatu den afarian parte hartu nahi duen bazkideak, egoitzan jarrita dagoen zerrendan punta daiteke, ekainaren 3a bitarte. Era berean, afaldu ostean egingo den danborradan parte hartu nahi duena ere apuntatu daiteke. Danborradako entsegu, ekainaren 4an 20:30ean Kultur Etxean izango da.

Argazki eta marrazki lehiaketa festetako kartela aukeratzeko

Aduna » Adunar guztiak parte hartzeko aukera izango dute eta lanak aurkezteko azken eguna ekainak 23a izango da.

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak, herriko festak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Gaia, *Aduna festa giroan* izango da eta argazkiak edota marrazkiak izan daitezke. Adunar guztiak parte hartzeko aukera izango dute. Lehiakide bakoitzak, gehienez ere hiru lan aurkezteko aukera izango du. Argazkiaren gutxieneko neurria, 15x20 zentimetro izango da eta marrazkiak DIN A4eko izan beharko du. Lan saritua, herriko jaietako egitaraua egiteko erabiliko da. Lanak ekainaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira.



HEZKETA ZIRKLOAK

- Erdi mailako zirkulak
- Mikroskopioa
- Instalazio elektriko eta automatizazioak
- Telekomunikazio instalazioak
- Gero mailako zirkulak
- Fabrikazio mekanikako disinuek
- Instalazio elektrotreknikoak



IES Hernani BHI
A. Ibarriaga - K. Labaka

HASIERARAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK

Mekanizazioa langilea

Erakunde jardunlaritza eta merkatu partetaren erarenzako zaintza tekniko laguntzailea

• **Ekintza asagertak:** Proiektu asagertak: Leonardo eta Erasmus

Lan jaitza

Giza balabideak: ikaslearen itzazpako prestakuntza eta ikaslearen banakako orientazioa

Erregulazioa: Orona, Itzar, Naxos

Sektoreko aplikatzaile ikasleak: Farmazia, Bitxiki BIEMH, Madriga Malesak



BESTE PRESTAKUNTZAK:

ESKANITZA PARTIZIALA:

Elektronika familia

SARBIDE PROBA

HOBIETUZ: Langilearen itzazpako prestakuntza

LANBIDE: Langilearen prestakuntza

Mekanika eta elektronikako familia

OGALAN: Gela inaurkitza

Erregulazio mekanikoaren bitarteko

Santa Barbara auzoa, zg. Tfnoa: 943-55 11 88 • K. Labaka, 7. Tfnoa: 943-5519 58 • 20120 - HERNANI (Gipuzkoa)

E-maila: institutua@hernanibhi.com / www.hernanibhi.com

AURREMATRIKULA EPEA maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

«Guztion ahotan dauden ingurumen arazoak» hizpide

Gizartea » Tolosaldea Garatzen agentziak ekitaldi ugari antolatu ditu Tolosaldean Aste Berdearen baitan.

ERREDAKZIOA

Aurtengoa biodibertsitatearen nazioarteko urtea da, eta horretaz gain, gaur zortzi, ekainaren 5ean hortzat, Ingurumenaren Eguna izango da, aitzakia egokia Aste Berdearen inguruko ekitaldiak egiteko.

Horiixe da Tolosaldea Garatzenek pentsatu duena, eta horregatik, Tolosaldeko Udalek, agentziaren laguntzarekin, ekitaldi ugari antolatu dituzte datozen egunetarako.

Aste Berdearen ekitaldiak antolatzeko, «ingurumenaren ikuspuntutik guztion ahotan dauden

ingurumen arazoak nahiz erronkak oinarritzat hartu ditugu», argitu dute Tolosaldea Garatzeneko arduradunek.

Hori dela eta, bi norabidetan zu-

zendu dituzte herri desberdinetan egingo dituzten ekitaldiak, biodibertsitatearen galera ekiditea eta kontsumo arduratsua bultzatzea, hain justu.



laz ere ekitaldi ugari izan ziren Aste Berdearen baitan, irudian Berastegi. HITZA

» EGITARAUA

■ **Ekainak 1, asteartea.** Eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa Berrobiko Pleno Aretoan 15:00etatik 19:00etara.

■ **Ekainak 3, osteguna.** Eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa Berastegiko eskolako ganbaran 10:00etatik 14:00etara. Era berean, 19:30ean Berastegiko aparkalekuaren azpiko lokalean, *Janariaren etorkizuna* (El futuro de la comida) dokumentala eskainiko dute eta Kontsumo Taldeen inguruko hitzaldia egingo dute.

■ **Ekainak 4, ostirala.** Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen al-

deko konpromisoaren sinadura ekitaldia Ibarroko udaletxean 12:00etan.

Era berean, 2. eskuko gauzen azoka ere egingo dute Villabonan 17:00etatik 21:00etara. Ekainaren 4an, gainera, goizean zehar, Villabonako eskoletan Espezie inbaditzaileei buruzko hitzaldia eskainiko dute.

■ **Ekainak 5, larunbata, Ingurumenaren Eguna.** Ura natur baliabideari buruzko ekintzak Adunan egun osoan zehar. Ikaztegietan odonatoen bizileku diren hezeguenak berreskuratzeko saiakera

ezagutzeko irteera egingo dute 12:00etan. Villabonako Berdura plazan, berriaz, goizean zehar *Atari Bizi* lehiaketako landareen banaketa egingo dute.

Alkizan, Kultur Etxean 10:00etan, Ernio-Gazume Batasunaren Garrantzizko Lekuan (LIC) babestutako intsektu automatata tailerra izango dute.

■ **Ekainak 6, igandea.** Zizurkil eta Asteasutik barrena mendi ibilaldia.

■ **Ekainak 12, larunbata.** Anoetan erreka garbiketa egingo dute auzolanean 10:00etan.

Tolosako Udaberri eta Musika Eskolako haurrak bat eginik

ERREDAKZIOA

Bihar Udaberriko haurrek emanaldi berezia eskainiko dute Tolosako Eduardo Mocoroa Musika Eskolako taldekideekin batera. Izan ere, aste guzti honetan zehar Musika Eskolaren Musikaria astea izan da, eta igandean amaierako emanaldi honekin.

Udaberrikoek argitu dutenez, izaz hasi ziren kurtsu amaierako ekitaldi hau antolatzen eta izan zuten arrakasta ikusita, aurtengoa ere emanaldia aurrera eramatea era-

baki zuten. Horiiek horrela, bihar 12:00etan eskainiko duten emanaldian Eduardo Mocoroa Musika Eskolako musikariek moldaturiko abestiez baliatuz, Udaberri dantza taldeko haurrek kurtsu zehar ikasitako dantzak erakutsiko dituzte jendaurrean. Kurtsu amaierako emanaldi honetan dantzatuko diren dantzen oinarria betiko uskal dantzetakoa bada ere, dantzak erabat berriak dira eta honekin batera baita musika eta jantziak ere.




Galiziar kultura pixka bat gertuago

TOLOSA » Galiziako produktu ohikoak, hala nola, olagarroa, muskuluak eta datil freskoak, albariño eta ribeiro ardoak edota postre bereziak probatu ahal izan dira Triangulon azken bi egunetan. Ezpeleta elkarteok bat egin dute ekimenarekin, eta tabernetan olagarroarekin egindako pinxoak eskainiko dituzte asteburuan zehar. I. TERRADILLOS



SARIDUNAK

① Leitzako **Iruso jatetxean** 2 pertsonentzako otordua
Amaia Jauregi Karrera (Tolosa)



Iruso Ostataua
Arkiskil, 14 Leitzalarreko errepidea
3880 Leitza
Tel. 948 397035

② Diska sorta bat (Travellin' Brothers, Bill Lyerly eta Mikel Gaztelumendi)
Manuela Jauregi (Tolosa)



③ Liburu sorta bat (1936ko Gerrako Oroitzapenak, Itzalean eta Loiolako Hegiak)
Karmele Begiristain Jauregi (Villabona)



④ Realaren igoeraren bi elastiko
Joxe Mari Artieda Pagola (Anoeta)
Nekane Martinez Usarralde (Alegia)



Sariak jasotzeko, HITZA jarriko da irabazleekin harremanetan.

Astea amaitzeko, jokoak eta sendabelarrak

Aisia » Kultur aroa da Albiztur eta Leitza; jarduerekin jarraituz, Leitza kantu bazkaria eta bertso saioa izango dira.

ERREDAKZIOA

Asteari amaiera emateko, kultur ekitaldiak dira nagusi Leitza eta Albizturren. Atzo arratsaldean, batean haurrentzako jokoak izan ziren bitartean, bestean sendabelarren ikastaroa egin zuten.

Leitza, Kultur Aroan murgilduta dira, eta atzo arratsaldean Aldaia Argandoñaren eskutik jokoak izan zituzten. Udaletxeko karrape azpian, artisten pare, mural bat margotu zuten denen artean, haur bakoitzak zertzelada batzuk emanaz. Honez gain, aurpegia margo-

tu zuten eta tatuaria ezberdinak jarri zituzten gorputzean.

Albizturren, bere aldetik, Nekane Martiarena oiartzuarraren eskutik inguruan ditugun belarrek inukenduak egiten ikasi zuten herri-tarrek. Belar ezagunenak bereizten erakutsi zien, eta hauek zertarako erabili daitezkeen azaldu.

Gaur Euskaltegiaren urteurrena ospakizun

Hogei urte bete ditu Leitza IKAE euskaltegiak. Hori dela eta, gauro hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hasteko, bazkaria izango da eta amaitzeko bertso saioa.

14:00etan mahaiaren bueltan elkartuko dira, kantu bazkaria egiteko. Arratsaldean, 19:00ak aldera hasiko da berriz bertso saioa. Kiroldegian izango da hau. Taula gainean goi mailako bederatzi bertso-



Leitza jokoak eta Albizturren sendabelarren ikastaroa, atzo. E. EZEIZA

lari ariko dira: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Jon Maia, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze, eta Sebastian Lizaso. Antolatzaileen esanetan, «aitzakia polita Leitza hurbiltzeko, festaz gozatzeko eta euskaltegiei laguntza emateko».

Albizturren, hurrengo ekitaldia ekainaren 4ean

Maiatzean hasitako kultur jardueri, ekainean ere emango diete jarraipena Albizturren. Hala, datorren ostiralean, iluntzeko 19:00etatik aurrera, sagardo dastatzea izango da. Sagarraren zuku preziatu honen inguruan aditu diren batzuk joango dira, eta herritarrei azalpenak emango dizkiete. Sagardoa edaten laguntzeko pin-txoak dastatzeko aukera ere izango da.

Hurrengo egunean Iruñea bisitatzera joango dira Albizturko jubitatuak. Gida baten laguntzarekin hiriko toki esanguratsuenak ezagutuko dituzte.

Bertara joan nahi dutenek, hilaren 3a bitartean eman dezakete izena udaletxean bertan edo 943 65 44 26ra deituta.

Euskadiko Sokatira txapelketa gaur jokoan

Areso » 640 kilokoan arteko lur gaineko lehen saioa izango da hau; bihar berriz, lokotx biltze eta aizkolarien lehia.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan, herri kiroltako hainbat txapelketa jokatuko dira. Alde batetik, gure eskualdean, Areson, gaur, lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketako saioa egingo da. Hau, pilotaleku ondoko larrainean izango da 17:30ean.

640 kilokoetan ondokoak ariko dira lehia: Areso, Gaztedi (Laukiz, Bizkaia), Getxo (Getxo, Bizkaia), Goiherri A (Erandio, Bizkaia), Goiherri B (Erandio, Bizkaia) eta Mutriku (Mutriku, Gipuzkoa). Aresok hartuko ditule-

hen jardunaldiko tiraldiak. Herriko taldea laugarren sailkatu zen joan den igandean, 680 kilokoan artean.

Gipuzkoako zenbait txapelketa jokoan bihar

Bihar arratsaldean, Urmietan, 17:30etik aurrera norgehiagoka gehiago ere jokatuko dira. Alde batetik, Gipuzkoako Lokotx Biltze txapelketa. Bertan lehiatuko da Baliarraingo Eneko Garmendia. Kirolari bakoitzak 50na lokotx bildu beharko ditu.

Gipuzkoako II. Mailako Aizkora Txapelketako bigarren kanporaketa ere jokoan izango da. Eskualdekoen artean, Asteasuoko Jokin Alkizaletze eta Ibarrako Unai Otaño lehiatuko dira. Aurreko hiru sailkatuek finalerako txartela lortuko dute.

Urrezko aizkolarien txapelketako semifinala

Leitza » Gaur arratsaldean jokatuko dira saioak Arabako Burgelu herrian; elite mailakoak eta 23 urtez azpiokoak ariko dira.

ERREDAKZIOA

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako, Eusko Label Sariko finalaurrekoak jokatuko dira gaur. Burgelun (Araba) izango da jardunaldia, 18:00etatik aurrera.

Lehendabizi, 23 urtez azpioko bigarren finalerdia ikusi ahal izango da. Bertan, Ruben Saralegi leizarra eta Ohian Larretxea ariko dira. Lau kana-erdiko moztu beharko dituzte. Bertako irabazlea, Azpeitian jokatuko den finalerako sailkatuko da.

Urrezko mailan berriz, Anjel Arrospe leburuarrak du hitzor-

dua. Hasiera batean, Donato Larretxea izan behar zuen honek aurkari, baina lumbago arazoengatik ezin izango du parte hartu, eta bere orde, Antonio Senosiain lehiatuko da. Hauek, 10 enbor sei modalitate ezberdinetan moztu beharko dituzte.

Saio berean, bigarren zati gisa, 19:45etik aurrera, elite mailako bigarren finalaurrekoak jokatuko dira. Floren Nazabal eta Juanjo Lopez Azpilikueta izango dira aurrez aurre.

Bestalde, jubenilen arteko lehia ikusteko aukera ere izango da. Lau aizkolaria ariko dira lanean: Eneko Otaño, Gaizka Lopez, Mikel Ussia eta Eloy Corchero. Garaileak Azpeitiko finalerako txartela eskuratuko du, bertan, aurkari, Eneko Saralegi izango duelarik. Azken saio hau igandean bertan jokatuko da.

Nafar jokoetan eta Añorgako txapelketan lehiatuko dira Aurrerakoak

ERREDAKZIOA

Gaur, partida gari jokatuko dituzte Aurrerako pilotariak. Nafar Jokoetan, kadeteetan, Aurrera Bko Xabi Apeztexea eta Ibai Gil-ek Club Natacionekoak izango dituzte aurkari, Iruñan. 10:00etan hasiko da partida. Julen Goikoetxea eta Mikel Eraso infantilek berriz Oberenakoen aurka jokatuko dute garai berean, Iruñean. Azkenik, Xabi Eraso eta Ibai Barberena kadeteek 17:30ean San Migel B-ren kontra jokatuko dute Lizarran.

Añorgako txapelketa ere ari da jokatzen, eta hemen, Aurrerako Xabi Jaunarena eta Mikel Hermandorenak, Garcia eta Alduntzinen kontra jokatuko dute. 18:00etan hasiko da partida.

Hilberria

TOMASA MUJICA BEITIA

(Ramon Urteagaren alarguna)

-Goian bego-

Nahiz eta gure artetik urrutira joan beti izango zaitugu amona gure bihotzean.



Zure bilobak: Aratz eta Nuria, Jon eta Amagoia, Alaitz eta Anartz, Ainitze eta Andoni, Oier eta Itziar; birlobak: Ekaitz, Lizar, Oihan

IDIAZABAL
2010eko
maiatzaren 29a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

E Elkarrizketa

JON ANDER GOÑI Artzaina

«Artzain ona izateko, ardiak ondo ezagutu behar dira»

Amezketak Aralarrera abiatuko da laster. Luki eta 400 ardiak ere hara joateko desiratzen daude. Artzainen bizimodua hauxe.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Antzinako ofizioa da berea. Oraindik ere batzu-batzuk maite dute-na. Batetik bestera, mendietan artaldeak zainduz pasatu dituzte, lau urtarook, urteak eta mendeak. Udaberria urtaro berezia da, artzainek eta ardiek mendia gustuko baitute. Aralarko inguruetan dira, eskualdeko artzain gehienak. Gazteena oraindik, baserrian, Txindokiri begira dago. Luki txakurra, makila eta 400 ardi hartu eta aurrean duen mendiaren ingurura joateko irrikan. Amezketako base-rritik atera eta lau ordutz tñipi-tapa ibili ostean, ardiak hain gustuko duten zelai berdeetan, urria arte geratuko dira.

Maiatza hilabete berezia al da artzainentzako?

Maiatzaren leian, ardiek, behiek eta behorrek Aralarko zelaietarako bidea hartu zuten. Udaberriarekin batera eguraldi ona hasten da eta ardiak mendira gustura joaten dira. Mendian ohitutako ardia, mendira joateko inbidiarekin egoten da. Hango belarra jateko irrikan. Aurten hala ere, eguraldi kaxkarrak egin du eta maiatzaren lehenan igo ziren animaliek asko sufritu dute.

Ardiak mendian gustura eta artzainak ere, pareko ezta?

Ardiak gora igotzen ditugunean, guk deskantsua hartzen dugu. Guri lana inoiz amaitzen ez zaigun arren. Maiatzetik urrirako tartean, Aralarren egongo dira ardiak. Artzain batzuk, denbora gehiena hantxe pasatzen dute. Noiz behin-ka, etxera jaisten naiz. Baserrian ere lana egin beharra dago eta.

Gustuko tokian aldaparik ez ordea...

Gaztetan eskola utzi egin nuen. Anaia artzaina dut eta hari laguntzen hasi nintzen. Horrelaxe hasi nintzen artzain lanetan. Nire lana egiten gozatu egiten dut. Lanik ez da falta hemen, lan asko egin behar du artzainak, eta baserriarrak. Batzuei, artzainen bizimodua lasaia dela iruditzen zaie. Baina oso oker daude. Mota guztietako lanak egin behar izaten ditugu: ardiak zaindu, bildu, hanka minak sendatu, hezu-

rren bat hautsi badute eskaiola jarri, umatzen lagundu, jetzi, gazta egin, belarra moztu...

Ardiei triste edo pozik dauden atzematen al diezu? Nola?

Artzainak ardia ezagutu egiten du. Horregatik gara artzain. Praktikak erakusten du hau, eskola liburuetan ez dago horrelakorik. Artzaintza ondo emateko artzainak bere ardiak ezagutu behar ditu. Animalari atzeman egiten zaio tristezia, poza... Udaberri aldean, barrutietan sartzen ditudanean, marruka hasten dira, protestatzen. Zintzarriak jartzen dizkietenean ere ma-

«Batzuk, artzainen bizimodua lasaia dela irudituta joaten dira Artzain Eskoletara»

«Artzainak ardia ezagutu egiten du. Praktikak erakusten du hau, eguneroko lanak»

rrika hasten die, baina pozik, badakite eta mendira joan behar dutela. Taldetik banatzen hasten direnean, nekatuta edo gaixorik daudelako da.

Nolakoa da artzainen lan eguna Aralarren?

Goizean goiz esnatzen gara, bost terdiak aldera. Ardiak erreparatzen ditugu denak ongi dauden ikusteko. Gazta ere egiten dute batzuk han goran. Nire anaia adibidez hantxe egiten du gazta. Baratza ere izaten dugu borda ondoan.

Borda? Etxetxoak ere badirudite batzuk.

Bai, bordak oso onak ditugu. Ez daukagu kexatzerik. Etxeak bezalakoak dira: bi logela, bainugela, sukaldea eta gazta egiteko tokiarekin. Anaiarekin eta beste artzain batekin Zotaleta izeneko zonaldean egoten gara, zaratiatik urrun.

Telebista ere izango da borda batzuetan...

Gurean ez! Baina telebistak ere behar izaten ditugu: ardiak zaindu, bildu, hanka minak sendatu, hezu-



A. BELAUNZARAN

seinalea hartzen dutenek badute telebista txaboletan. Ura ere deposituetatik hartzen dugu.

Mendi bidean inguruan izan duzue kexarik. Konpondu al da auzi hau?

Oraindik ez. Egoera txarrean dau-

«Aralarren goizean goiz esnatzen gara eta ardiak erreparatzen ditugu ongi dauden ikusteko»

de mendiko pistak. Bidearen erdia kotxez egiten dugu eta bestea mandoarekin, orain dela 100 urte bezala ibiltzen gara.

Artzain gazte gutxi ikusten da gaur egun, nahiz eta artzain eskolak ere badiren. Nolakoa etorkizun-

na ikusten diozu aukeratu duzun lanbideari?

Amezketan 6-7 artzain bagara eta ni naiz gazteena. 34 urte ditut eta gainontzekoak zaharragoak dira. Nire anaia adibidez, 67 urte ditu eta mendian dago bera. Eskolak badira, Arantzazukoa adibidez. Batzuk, artzainena bizimodu lasaia dela irudituta joango dira ikas-tera, zerbait berezia egin asmoz. Baina artzain izatea gustatu egin behar da. Tokia behar duzu, terrenoak, baserria...lan asko egin eta gainera diru gutxi ikusi.

Lan asko eta diru gutxi al da artzainen hilabete amaierako kantua?

Duela 40-50 urte ofizio oparoa zen artzainena. Gaur ordea, preziorik ez du egiten, ez esneak, ez haragiak

ezta ardi ileak ere. Haragiaren prezioarekin 3 euro egin ezinik gabil-tza. Duela 50 urte, ardi kilo ilea euro batean saltzen zen. Prezioek gora egin duten neurrian, gaur, ardi ileak, kiloko 150 euro egin behar luke. Azken urteetan ordea,

«Amezketan 6 edo 7 artzain gara eta ni naiz guztietan gazteena. 34 urte ditut»

debalde eman dugu, xentimorik ere ez dugu jaso. Gaztak ere egiten ditugu, eta horrekin ateratzen gara aurrera. Krisi egoerarekin prezio berdinei eutsi diegu, baina jendeak gutxiago kontsumitzen du.



20°
11°

GOIZA LAINOTUTA
ARRATS. EURIA
BEROENA 20°
HOTZENA 12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Musika Bandaren kontzertua Berdura plazan 19:00etan.
■ **Tolosa.** R eta Humus Bonberranean 22:30ean.

Festa

■ **Tolosa.** Casinoren festa:
12:00etan meza Santa Klara komentuan hildako bazkideen alde eta 14:00etan bazkaria elkartearen.

Dantza

■ **Ibarra.** IV. Dantzari Txiki Eguna eta Alurr Eguna: 09:30ean Alurrieko haurren ongietorria kanpotik datozenei; 10:00etan emanaldiak herrian zehar; 12:30ean helduen emanaldia plazan; aisialdi taldeen saioa; bazkaria etxeetan; 18:30ean Alurrien emanaldia plazan; luntxa eta erromeria 22:00etatik 24:00etara.

Kultura

■ **Leitza.** Kultur Aroa: 14:00etatik aurrera IKAK antolatutako festa, XX. urteurrena ospatzeko, kantu bazkaria, ingurutxo eta bertso saioa izango dira; eta 24:00etan Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuak Atekabeltzen, Errugabe, Sutan eta Fiermo taldeekin.

Kirola

■ **Tolosa.** IV. Batel Topaketa Oria ibaian: 11:00etan batxiler mailako Euskal Herriko ikastetxeetako batel mistoen sailkapen estropadak; 12:00etan Tolosaldeko ikastetxe-etako DBH mailako arraunlari gazteen batel erakustaldia; 12:45ean batel onenen arteko Tolosako

banderaren lehia eta 13:00etan bandera eta oroigarri banaketa. Goizean zehar ergometroak erabiltzeko aukera Zerkausion eta DBH1. mailakoentzat ontzietan ibiltzeko aukera. Antolatzailea: Hirukide, Orixe eta Laskorain ikastetxeak.
■ **Tolosa.** Xake azkarreko Tolosako Txapelketa 16:00etatik aurrera Xake Elkarteak Berdura plazan duen egoitzan.

Jaiak

■ **Txarama.** Txaramako jaiak: 11:00etan suziria eta Leaburu-Txaramako dantzari gazteen dantza saioa; ondoren Toka Txapelketa; 13:00etan Pintxo Lehiaketa; 16:00etan haurren jolasak eta jarrarian, txokolatada; 21:00etan herri afaria Astiasaran trikitilarien saioa eta Jose Luis Gorrotxategi eta Imanol Lazkano bertsoariekin.
■ **Anoeta.** Koadrila Eguna: 12:00etan Koadrilen Eguneko txupinazoa eta kalejira; 14:00etan bazkaria; 16:30ean koadrilen arteko jokoak plazan; 18:30ean koadrilen poteoa talde sorpresarekin; 21:00etan koadrilen afaria frontoian; 23:30ean erromeria plazan, Bide Batez taldearekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Sagardoa eta Erreala protagonista

VILLABONA ■ Jesusen Bihotza Ikastolako LH4.mailako ikasleak Santiagomendin izan ziren pasa den astean Sagardoaren Museoan. «Gauza mordoia ikasi zuten, baita sagardoa egiteko prozesua ere», argitu dute ira-

kasleek. Era berean, asteazkenean Txuri-Urdinera joan ziren patinetan ibiltzera eta Errealaren Museoan ere bisitatzeko aukera izan zuten, bigarren argazkian ikusi daitekeen bezala. HITZA



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



ziklo guztiak
euskaraz

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 31etik EKAINAREN 11ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

► Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak

► Mekanizazioa

► Soldadura eta Galdaragintza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra